


Esther Larrañaga:

“Ingurugiro-politika bat badugu azkenik”

Pili Kaltzada

IHOBE



Lerro hauek idazten ari garelarik, Ingurugiro Legea Legebiltzarrean dago oraindik, bertan egingo zaizkion iradokizunak eta zuzenketak jasotzeko zain. Hurrengo urratsak ezagunak dira: Legea onartu egingo da ia dudarik gabe eta, azkenik, duela 18 urtetik arautu gabe zegoen arloa Lege batek jasoko du. Euskal Autonomia Elkarteari dagokion Lege hau da Eusko Jaurlaritzako Ingurugiroko sailburuordearekin zehatz-mehatz aztertu duguna.



Esther Larrañaga bergararrak du, EAren izenean, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailordetzaren ardura. Ingurugiro Lege berriaren alde desberdinak koordinatu ditu.

Zetiaz-Elhuyar: Duela 18 urte tik hona pilaturiko zorra da Legearekin kitatuko dena. Nolatan uler daiteke horrenbeste denbora behar izatea hain garrantzitsua den arloa behar bezala arautzeko?

Esther Larrañaga: Dudarik gabe 18 urte denbora luzea da. Estatutuak aurreikusten duen konpetentzia izanik, gu garatzearen aldekoak gara eta horretan ahalagindu gara Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailera iritsi ginenetik. Guk ezin dugu gure gain hartu gure aurrekoek egin ez dutenaren ardura; etorkizunari begira lan egin nahi izan dugu eta herritarrei agindu genien bezala, etorkizunerako baliabideak lantzen ari gara. Bestalde, eta guk egindako biderei dagokionez, ingurugiroa oso esparru zabala dela kontuan izan behar da; den-denak eragin diezaiokete ingurugiroari: nekazaritzak, zuzenbideak, industriak, osasunak, eta abarrek. Beraz, ia arlo guztiak ukitzen dituen arautegia landu behar izan dugu eta hori ez da goiz batean egiten. Aurreproiektua aurkeztu baino lehen, talde askorekin hitz egin genuen adostasuna bilatu nahian. Gero Legebiltzarreko urratsa dator, gure iritziz oso garrantzitsua dena Legea osatzeko eta biribiltzeko orduan.

Z.-E.: Legebiltzarrerara iritsi baino lehen, 50 bat talderi igorri zaie testua iradokizunak egin eta zuzenketak proposatzeko. Nolako erantzuna jaso duzue?

E. L.: Oro har oso aldeko iritziaz entzun ditugu Legea bera

Legeak EAEko ingurugiro-politikaren nondik-norakoak zehaztuko ditu. Arautegi berriaren argitan, prebentzioan oinarritutako politika egingo da: produkzio garbia sustatzea, garapen eramangarria helburu duten iharduerak lehenestea eta energiaren zentzuzko erabilera ziurtatzea

dira Lege honen habeak. Esther Larrañagak zuzentzen duen Ingurugiro Sailordetzan bi urte inguru eman dituzte legearen xehetasunak aztertzen, gizarteko sektore desberdinekin adostasuna bilatzen eta herritarren kezak jasotzen. Egindakoaren emaitza da EAEko Ingurugiro Lege berria.

INGURUGIROA

ezagutu baino lehen; izan ere, jendeak benetan estimatu du behingoz arazoari heldu izana eta egin den ahalegina. Iradokizunei dagokienez, pentsa dezakezun bezala, bakoitzak bere arloari dagozkion xehetasunei eman die lehentasuna eta guri, egia esan, oso baliagarria gertatu zaigu eman diguten informazioa, inork baino hobeto arlo horretan lanean ari direnek hitz egin baitezakete horretaz.

Z.-E.: Talde ekologistek, ordea, espero baino ekarpen gutxiago egin dute...

E. L.: Hala da. Guk gure komunitatean lanean ari diren talde ekologista guztiei eskatu genien Legea aztertzeke eta gurekin harremanetan jartzeko. Batzuek denbora gutxi eman zaiela aur-

pegiratu digute; guk bi urte pasa ditugula Legea lantzen eta beraiei oso denbora gutxi eman diegula guztia aztertzeke. Ez zait onargarria iruditzen argudio hori; ezin litezke parekatu Legearen diseinua eta erredakzioa zuzenketekin eta, gainera, beste erakunde guztiek denbora izan dute zuzenketak egiteko. Ez dakit zein den benetako arazoia, baina susma dezaket ez dutela parte hartu nahi izan; bazterrean gelditu nahi izan dutela, erakundeekin ez kolaboratzearren. Nire iritziz, talde ekologistek beste erakunde askok baino hobeto ulertu behar dute zein garrantzitsua den Lege hau.


Z.-E.: Legeak aurreikusten dituen baliabide berrien artean, In-

gurugiro Inpaktuaren Azterketa azpimarratzeko modukoa da. Zer erakutsiko digu IIAk?

E. L.: Lege honek prebentzioa du helburu nagusi; iharduera desberdinen balizko inpaktua benetan ezagutu behar dugu eta, ahal dela, gertatu baino lehen; horretarako balio du IIAk. Gaur egun ere egiten da azterketa hori, baina Legeak garbi esaten du zeintzuk diren inpaktuaren azterketa derrigorrez egin beharko duten obrak edo lanak. Orain arte murriztegia zen betekizun hori eta hemendik aurrera Legeak benetako prebentzio-neurri gisa baliatuko du IIA.

Z.-E.: Enpresa-elkarteetatik ere jaso dira iradokizunak. Nahitaez, enpresak inplikatu beharko dira produkzio garbiaren bidean?

FERNANDOREN EGIAK, BAINA...



Ingurugiroa ez da besteak bezain iharduera produktiboa. Gainerako guzti-guztiak burutzeko behar den euskarria da, izan ere, ingurugiroa. Iturria irekitzen dugunean, arnasa hartzen dugunean edo menditik osteratxoa egitera irteten garenean inguruari eragin egiten diogu. Eta guk sortutako inpaktu horrek, gainera, ez du mugarik; iturburutik baino askoz haratago doa inpaktu ekologikoa, tximeleta efektuaren teoria ez dela horren zentzugabea frogatuz, bidenabar. Ingurugiroa, bestela esanda, herri txiki bat da: ezin da deus egin inguruko guztiok ohartu gabe. Babestu beharraz dudarik egiten ez badugu ere, beti dago laino beltzen bat edo beste asmoetatik ekinera iragaitea eragozten diguna. Batetik, ekologian neurri guztiek denbora behar dute gorpuzteko eta emaitzak ematen hasteko. Hazia ez da egun batetik bestera zuhaitz bilakatzen, ezta politikariek sarritan eskatzen duten bezala lau urtetik behin —hausteskundearen garaian ahal bada— ere. Ingurugiroak ez du berehalako errentagarritasunik eta, beraz, ez dira erraz aurkitzen horretan inbertitzeko prest daudenak. Epe motzari begiratzen zaio, Keynesek zioen legez, “epe luzean... denok hilik egongo gara eta”. Bestalde, esku askoren erantzukizuna da ingurugiroa. Anitz ekinbide, arautegi eta iharduera nahasten dira ingurugiroa izendapenaren baitan: nekazaritzari, industriari, garapen-politikari eta, noski, osasunari zuzen-zuzenean eragiten die ingurugiroak. Arlo horietako bakoitzean lehentasunen maila desberdina izaten da eta banaketak —fisikoak zein filosofikoak— ez dio batere mesederik egiten ingurugiroari.

KEZKATURIK GAUDE

Ingurugiroa gero eta gehiago kezkatzen gaituen gaia da. Euskal herritarrok ingurugiroari buruz dugun irudiaz datu fidagarri askorik ez dugu, baina hurbilpen gisa edo, Sigma 2 izeneko enpresak Estatu espainoleko herritarren artean egin berri duen galdeketa erabiltzea zilegi zaigulakoan gaude. Bertan, bistan denez, ez dira jaso Iparraldeko herritarren kezkak; datu horiek inon eskura bazenitu, irakurle, guri helaraztea eskertuko genizuke, ondoren osatuko dugun "argazkia" biribiltzearen.

Sigma 2 enpresak duela bi urte inguru ekin zion ekobarometroa izeneko galdeketa sistematikoki egiteari. Tarte honetan, bi galdeketa orokor burutu dira estatuko herritarren artean. Bi aldi horietan jasotako datuei esker, zalantzarik gabe, esan dezakegu ingurugiroa kezka-iturri dela herritarrentzat. Oso kezkatuak agertu dira galdetutakoen % 80 eta % 2k soilik esan du gure ingurunearen egoera ez dela bere ardura.

Datuon argitan, kezka eta ezagutza elkarren eskutik datozela ondoriozta genezake. Gero



eta informazio gehiago eskura dezakegu ingurugiroari buruz: poluzioa eragiten duten substantziak eta berè eraginak, zenbait proiekturen inpaktu ekologikoa, etab. Oro har, talde ekologistek eta gobernuz kanpoko erakundeek ahal duten guzti-guztia egiten dutela uste omen dugu, inkestan jasotakoen % 74k adierazitakoaren arabera. Ingurugiro-gaietan erakundeek burutzen dituzten politikei buruz, ordea, guztiz bestelakoa da ekobarometroan herritarrek erakutsi duten jarrera; inkestatutakoen % 90k uste du behar baino gutxiago egiten dutela erakundeek ingurugiroa babesteko. Hasi udaletako ingurugiro-politikatik eta Europako Batasunean egiten denera, herritarrok nahikoa iritzi negatiboa dugu erakundeen lanaz. Herritarren, gutariko bakoitzaren esku, dauden iharduerei dagokienez, jarrera aktiboagoa eta kontzientziatuagoa erakusten digu Sigma 2ren azken inkestak. Kalea ez zikintzen (% 61), etxean sortzen diren hondakinak birziklatzen eta zaborra selektiboki biltzen (% 44), ingurugiroari kalte eragiten ez dioten produktuak kontsumitzen (% 18) eta automobila ahalik eta gutxien erabiltzen (% 12), herritarrok gero eta ardura gehiago erakusten dugu ingurugiroa babesteko.



INGURUGIROA

CAF



E. L.: Dударik gabe, baina ez dute egingo Legeak agintzen duelako, bidea horixe dela ikusiko dutelako baizik. Izan ere, etorkizunean lehiakorrak izan nahi badugu, garbi produzitu behar dugu eta ahalik eta energia gutxien erabiliz, gainera; ezingo dugu behar baino lehengai gehiago erabili eta materialak gaur egun baino gehiago aprobetxatu beharko ditugu. Ingurugiroa ez da iraungitze-datarik ez duen kreditua; inoiz agor liteke eta hori ez gertatzeko bideak jarri eta urratu behar dira. Nire iritziz, euskal enpresariak oro har ongi ulertzen eta baloratzen dute ingurugiroa babesteko bultzatzen den ekin oro. Egia da, bestalde, hori guztia praktikan jartzeko ados egotea baino askoz gehiago behar dela. Prozesu hau geldieztina da, baina gaur-gaurkoz bi abiaduratan gabiltza.

Z.-E.: Eta abiadura motelagoz doazenentzat zigorrak eta isunak aurreikusten ditu Legeak?

E. L.: Leku askotan horixe da bereziki azpimarratu dutena, Legea-

Enpresek ere iradokizunak egin dizkiote lege berriari. Etorkizunean lehiakorrak izateko, nazioarteko merkatuan lehiatzeko ingurugiro-politika egokiak beharko dira.

ren alderdi zigortzailea. Egia da egokitu eta gaurkotu egin direla isunen ezaugarriak, gaur egun ditugunak erabat zaharkiturik baitzeuden. Nolanahi ere, Sailordetzak ez du horretan bereziki eragin nahi izan: aurretik egin beharreko formazio- eta prestakuntza-lana behar bezain eraginkorra bada, uste baino isun gutxiago izango dira.

Z.-E.: Gaur egun EAEko ingurugiro-politika hainbat erakunderen esku dago: Europako Batasuna, gobernu zentrala, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, mankomunitateak, udalak... Nola koordinatuko da erakunde horien lana?

E. L.: Erakundeok herritarren kezka entzuteko eta bere proposamenak jasotzeko gaude eta

Lege berriak bide horiek ere indartu egiten ditu. Horrek esan nahi du erakunde horiek guztiek ingurugiro-eskumena izango dutela eta erantzuten segitu beharko dutela. Horrez gain, Legeak bi erakunde berri sortzea aurreikusten du: Aholku Batzordea eta Ingurugiro Batzordea. Talde horietan zehaztuko dira bakoitzaren egitekoak eta eztabaidarako, hausnarketarako eta egitasmo berriak proposatzeko foro egokiak izango dira. Koordinazioa esaten denean, hala ere, nik bestela ulertzen dut. Nire ustez, normala eta egokia da erakunde desberdinak ingurugiro-politikan inplikaturik egotea, herritarrek beren kezka, beharren edo ohituren arabera batera edo bestera joko dutelako. Kontua da, ordea, ingurugiro-politika bakarra izan behar dugula gauzak behar bezala egin nahi badira. Eta horixe da guk proposatu duguna: elkarlana bultzatuko duen marko bat, bakarra, gure garapena gidatuko duen iparrorratza. 